

## **AIA, GETARIA, ORIO, ZARAUTZ ETA ZUMAIKO UDALEN ETA UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN HIZKUNTZA POLITIKA OROKORRA**

Gaur, uztailak 4, Urola Kostako Udal Elkarteak eta Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiaiko udalek prentsurrekoa eskaini dute, onartu berri duten hizkuntza politikaren berri emateko.

Prentsurrekoan parte hartu dute honakoek: Gari Berasaluze Zarauzko udaleko euskara-zinegotziak, Amets Etxabe Getariako Udaleko euskara-zinegotziak, Jon Agirresarobe Orioko Udaleko euskara-zinegotziak eta Amaia Guruzeta Udal Elkarteko lehendakariak.

Legegintzaldi berriarekin, Urola Kostako Udal Elkarteak **eskualdeko Euskara Batzordea** eratu zuen joan den urrian. Batzorde edo lantalde horretan parte hartzen dute Udal Elkarteko udaletako (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiaiko) eta Udal Elkarteko euskara zinegotziek eta euskara teknikariek.

Eskualdeko Euskara Batzordeak hainbat bilera egin ditu urriaz geroztik eta hainbat gai landu ditu. Horietako bat da **Udal Elkartearen eta udalen hizkuntza politika orokorra** lantzea.

Joan den martxoaren 13an Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak hizkuntza politika orokorra onartu eta udalei proposamena egin zien bat egiteko. Martxotik ekainera bitartean udaletako batzorde eta osoko bilkuretan gaia aztertu eta 5 udalek egin dute bat proposamenarekin:


		Data
Urola Kostako Udal Elkarteak	Zuzendaritza Batzordea	2012-03-13
Aiako Udala	Osoko Bilkura	2012-06-20
Getariako Udala	Osoko Bilkura	2012-03-28
Zarauzko Udala	Osoko Bilkura	2012-03-28
Zumaiaiko Udala	Osoko Bilkura	2012-04-17
Orioko Udala	Osoko Bilkura	2012-03-28

### **Zer dela eta hizkuntza politika orokorra?**

Udal Elkarteak eta udalek hainbat urrats egin dituzte azken urteetan euskararen erabilera normalizatzeko, baina asko dago oraindik egiteko. Norbere etxetik hasi nahi dugu lanean eta udalak euskaraz funtzionatzea nahi dugu.

Eragileekin euskararen normalizazioaren alde aritzeko Udalek eredugarri behar dute. Uste dugu hizkuntza politika bateratua baleko instrumentua izango dela horretarako.

### **Hizkuntza politikaren oinarriak**



Hizkuntza politika honen oinarrian dago Udal Elkarteak eta udalek euskararekiko hartzen duten konpromisoa, batetik, euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatzeko eta, bestetik, belaunez belaun euskararen jarraipena bermatzeko.


Bestetik, Udal Elkarteak eta udalek bere egiten dute gure eskualdeko alor guztietan euskararen erabilera normalizatzeko eginkizuna.

Horrekin batera, Udal Elkarteak eta udalak egile eta eragile direnez, legegintzaldiko helburutzat hartzen da euskara izatea Udal Elkartearen eta udalen lan hizkuntza, barruko lanetan zein beste administrazio publikoekin dituzten harremanetan.

### **UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN HIZKUNTZA POLITIKA**

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalek eta udal horiek osatzen duten Urola Kostako Udal Elkarteak honako hizkuntza politika orokor hau onartzen dugu:

1. Euskara da gure udalerrietako berezko hizkuntza.
2. Administrazio publiko gisa, gure egitekoa da euskararen erabilera normalizatzea, euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzea eta hurrengo belaunaldiei eskaintzea.
3. Udal zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzeari gain, geure egiten dugu gure lurralde eremuan alor guztietan euskararen erabilera normalizatzeko helburua. Hori lortzeko erabaki eta irizpide bateratuekin jokatu da.
4. Udalen eta Udal Elkartearen zerbitzu eta lan hizkuntza euskara izango da, bai ahoz, bai idatziz.
5. Herritarrei lehen hitza euskaraz egingo zaie eta beraiek hizkuntza aldatzen badute, orduan, beraiek aukeratutako hizkuntzan erantzungo zaie. Modu berean, hartzaile jakinik gabeko argitalpen, errotulu, eta udalen mezuak ere ahal dela, euskara hutsean egingo dira. Bestela, euskara lehenetsiko da.
6. Udalen eta Udal Elkartearen arteko harremanak (ahoz nahiz idatziz) euskaraz izango dira eta Euskal Herrian kokatuta dauden administrazioekiko harremanak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, euskara hutsean izatera joko da. Era berean, enprekin, hornitzaileekin eta udalentsat lan egiten duten gainerako sozietateekin ere, harremanak euskara hutsezkoak izatera joko da.
7. Udaletan nahiz Udal Elkartearen egiten diren langileen kontratazioetan, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzen behar du langileak.
8. Udaletan nahiz Udal Elkartearen egiten diren era guztietako kontratazioetan hizkuntza baldintzak ezarri eta betearaziko dira; gauza bera egingo da elkartei ematen zaizkien era guztietako diru-laguntzetan ere.
9. Jendaurreko ekitaldietan euskara erabiliko dugu, eta ele bitan izan behar duten kasuetan, euskara lehenetsiko dugu.



10. Hizkuntza politika orokor hau garatzeko udal bakoitzak eta Udal Elkarteak hizkuntza irizpide zehatzak landu, onartu eta moldatuko dituzte.

Konpromiso sorta aurkeztu dugu, hizkuntza politika bateratuan jaso dena. Aurrerantzean, ekintza puntualak bideratuko ditugu konpromisoak betetzen joateko.

**Lehen ekimena: hornitzaileei eskaera**

Lehen ekimena, udalen eta Udal Elkartearen hornitzaileei harremanak euskaraz izateko eskaera egitea izango da. Datozen egunotan jakinaraziko diegu ohar eta idatziak (txostenak, aurrekontuak, fakturak...) euskaraz jaso nahi ditugula eta ahozko harremana ere ahal dela euskaraz izatea nahi dugula. Uste dugu udalek eta Udal Elkarteak bere hornitzaileei fakturak euskaraz eskatzeak eragin handia izango duela.

Aiako Udala  
Getariako Udala  
Orioko Udala  
Zarauzko Udala  
Zumaiako Udala  
Urola Kostako Udal Elkartea

2012-07-04



## **POLÍTICA LINGÜÍSTICA DE LOS AYUNTAMIENTOS DE AIA, GETARIA, ORIO, ZARAUTZ Y ZUMAIA Y DE LA MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA**

El día 4 de julio los ayuntamientos de Aia, Getaria, Orio, Zarautz y Zumaia y la Mancomunidad Urola Kosta han ofrecido una rueda de prensa para presentar la política lingüística general aprobada tanto por la Mancomunidad como por los plenos de los cinco ayuntamientos.

Han asistido a la presentación Gari Berasaluze, concejal de euskera de Zarautz, Amets Etxabe. Concejal de euskera de Getaria, Jon Agirresarobe concejal de euskera de Orio y Amaia Guruzeta presidenta de la Mancomunidad.

La propuesta de la política lingüística aprobada fue elaborada por la comisión de euskera de la comarca, compuesta por los concejales y técnicos de euskera de los cinco municipios y de la Mancomunidad. Tras su aprobación por parte de la Comisión Ejecutiva de la Mancomunidad, la propuesta fue presentada a los cinco municipios, aprobándose la misma por los respectivos plenos.


La política aprobada pretende establecer el marco de actuación de los municipios y de la Mancomunidad para lograr la normalización del uso del euskera, empezando en primer lugar desde los propios ayuntamientos y desde la Mancomunidad. En ese sentido, se plantea que el euskera sea la lengua de trabajo de los ayuntamientos y de la Mancomunidad, con todo lo que ello implica. La administración debe ser ejemplo en el uso normalizado del euskera.

La política lingüística aprobada viene recogida en diez puntos:

### **POLÍTICA LINGÜÍSTICA DE LOS AYUNTAMIENTOS DE AIA, GETARIA, ORIO, ZARAUTZ Y ZUMAIA Y DE LA MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA**

Los ayuntamientos de Aia, Getaria, Orio, Zarautz y Zumaia y la Mancomunidad Urola Kosta aprobamos la siguiente política lingüística:

1. El euskera es la lengua propia de nuestros municipios.
2. Nuestra labor como administración pública es la de normalizar el uso del euskera, garantizar los derechos lingüísticos de las personas euskaldunes y ofrecer el euskera a las generaciones futuras.
3. Además de la normalización del euskera en los servicios municipales, asumimos el objetivo de normalizar el uso del euskera en todos los ámbitos de nuestro territorio.
4. El euskera será lengua de servicio y de trabajo de los Ayuntamientos y de la Mancomunidad.
5. Nos dirigiremos en euskera a los ciudadanos, y cambiaremos de idioma cuando así lo requieran. Del mismo modo, las publicaciones sin destinatario



- conocido y los rótulos y mensajes del ayuntamiento se realizarán en euskera siempre que se pueda. Y si no es posible se priorizará el euskera.
6. Los ayuntamientos y la Mancomunidad se relacionarán en euskara (de forma oral y escrita), y se tratará de hacer lo mismo con las diferentes administraciones de Euskal Herria. Así mismo, se procurará mantener una relación exclusivamente en euskera con las empresas, proveedores y sociedades que trabajen con los ayuntamientos.
  7. Los trabajadores contratados por los Ayuntamientos o la Mancomunidad estarán obligados a cumplir con el perfil lingüístico que les corresponda.
  8. A todas las contrataciones que se hagan desde los Ayuntamientos y la Mancomunidad así como a las subvenciones de todo tipo dirigidas a asociaciones, se les asignarán condiciones lingüísticas que deberán cumplir.
  9. Los actos públicos se desarrollarán en euskera, en aquellos que tenga que utilizarse las dos lenguas, se priorizará el euskera.
  10. La Mancomunidad y los Ayuntamientos, desarrollarán y aprobarán criterios lingüísticos específicos para desarrollar esta política lingüística de líneas generales.

Los ayuntamientos y la Mancomunidad entienden que la consecución real de los principios y objetivos establecidos en la política lingüística vendrán de una actuación conjunta de los ayuntamientos y de la Mancomunidad, por lo que se ejecutarán distintos programas y acciones durante los meses siguientes.

La primera de las acciones consiste en la solicitud a todos los proveedores de servicios y productos de los ayuntamientos y de la Mancomunidad para que remitan sus informes, albaranes y facturas también en euskera. Dicha acción se va a desarrollar a lo largo de julio.